

## 07/2017 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2017KO URRIAREN 30EAN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATEA

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

##### ZINEGOTZIAK:

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

##### BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M<sup>a</sup> Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2017ko urriaren 30ean arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Pedro M<sup>a</sup> Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Aratz Luisa Urkola zinegotziak ezin etorria adierazi du; Iñaki Merino Castro, Kepa De la Iglesia Sánchez, Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziek ez dute ezin etorria adierazi.

- 1.- **2017KO IRAILAREN 25EAN OSPATURIKO UDAL PLENOAREN BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.**  
2017ko irailaren 25eko udal plenoaren bilkuraren akta aho batez onartu dira.
- 2.- **EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2017KO IRAILAREN 18TIK 2017KO URRIAREN 9 BITARTE, 385 ZENBAKITIK 423 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.**  
2017ko irailaren 18tik 2017ko urriaren 9a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, udal batzarkideak jakinaren gainean geratuz.
- 3.- **2017KO URRIAREN 2KO ALKATETZAREN EBAZPENA BERRESTEA: ANOETAKO UDALA ETA BPXPORT KIROL ZERBITZUAK, S.L.REN ARTEKO DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 1 ZENBAKIKO 1 EPAITEGIAREN 80/2017 SENTENTZIA PARTZIALKI BETETZEA.**

Udalbatzak berresten du 2017ko urriaren 2ko ondorengo dekretua:

“DEKRETUA

Anoetan, 2017ko urriaren 2an.

Ikusita 2017ko apirilaren 24ko Donostiako Administrazioetarako Auzietako 1 Zenbakiko Epaitegiaren 80/2017 Epaia.

Kontuan hartuta aipatu den epaiari jarraituz, Anoetako Udalak BPXPORT KIROL ZERBITZUAK, S.L. baltzuari egin beharreko ordainketaren ezaugarriak hurrengoak direla:

Kiroldegiaren kudeaketa kontratuaren likidazioa, 2014ko apirilaren 14tik:

49.857,77 euro.

Kiroldegiaren kudeaketa kontratuaren likidazioa, 2015ko urtarrilaren 20tik:  
130.601.,95 euro.

Guztira: 180.459,72 euro.

Ikusita gastua behar bezala fiskalizatua izan dela eta 1/2017 kreditu aldaketa espedientean 2017ko irailean behin betiko izaerarekin onartutako hurrengo aurrekontu aplikazioari egotziko zaiola: 1.0000.471.342.10.01 Ekarpena: Kiroldegia.

Kontuan hartuta alkate ebazpenez hartutako erabaki honek ondoren Udalbatzak berrestea behar duela.

Dagozkidan eskuduntzaz baliatuz, HONAKOA EBATZI DUT:  
Lehena: 180.459,72 euroko gastua onartzea, eta 2017ko apirilaren 24ko Donostiako Administrazioetarako Auzietako 1 Zenbakiko Epaitegiaren 80/2017 Epaia jarraituz bere ordainketa agintzea BPXPORT KIROL ZERBITZUAK, S.L. baltzuaren alde.

Bigarrena : Erabaki hau Udalbatzak egingo duen hurrengo bilerara eramatea bere berrespenerako.

Hirugarrena: Ebazpen honen berri ematea Udaltzarak egingo duen hurrengo bilera arruntean.

Honela agindu eta sinatu du Pedro Maria Estanga Lasa alkate jaunak; eta neuk, idazkariak, fede eman.”

#### 4.- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUAREN ETA ANOETAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ENTITATEEN KONTAKTU DATUAK LAGATZEARI BURUZKOA.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko departamentuak Gipuzkoako eragileei buruzko informazioa kudeatzeko datu-basea sortu nahi du, Aldundiaren politikak, programak eta zerbitzuak hedatzen eta bultzatzen lagunduko diguten erakunde, enpresa, elkarte eta eragileen kontakturako datuak bilduz.

Tresna berri hau Gipuzkoako lurraldeko tokiko administrazioen esku jarri nahi dute, herritarrekin eta gizartearekin erakunde publiko ezberdinetatik egiten duten komunikazioa hobetzen laguntzeko helburuarekin. Gainera, datu-basea osatzeko informazioa elkarlanean biltzea ezinbestekoa izango da tresna eraginkor eta baliagarria sortu ahal izateko.

Gipuzkoako Foru Aldunditik udalerrri bakoitzeko eragileei buruzko datuak lortzeko orduan udalen lankidetzak nahi dute, izan ere udalok dugu gure udalerriko eragileei buruzko informazio fidagarria. Hori dela eta, beren proiektuarekin bat egin dezagula eskatzen digute. Horretarako, hurrengo asteetan Foru Aldundiaren izenean lan egingo duen ARAZI enpresatik gurekin harremanetan jarriko dira, eragileei buruzko informazio-bilketa prozesuan gure lankidetzak eskatzeko.

Bozketa eginda, Udaltzarrak aho batez onartu du hitzarmena, ondoren aipatzen den eran:

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko departamentuaren eta Anoetako Udalaren arteko lankidetzak hitzarmenaren, entitateen kontaktuko datuak lagatzeari buruzkoaren testua eta I. Eranskina onestea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko departamentuaren eta Anoetako Udalaren arteko lankidetzak hitzarmenaren, entitateen kontaktuko datuak lagatzeari buruzkoaren lankidetzak-hitzarmen berriaren sinadurarako ahalmena ematea Anoetako Udaleko Alkate-Lehendakariari.

Hirugarrena.- Akordio honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Modernizazio zerbitzuari ematea.”

Laugarrena.- Erabaki honi, eta bere edukia erantzuten bezala erantsi onartu den lankidetzak hitzarmenaren testua eta I Eranskin moduan.

#### 5.- **ORDENANTZA FISKALAK.**

Lehena.- 2017 urterako, Anoetako Udal Ordenantza Fiskaletan, behin behineko izaeraz, ondorengo aldaketak onestea proposatzen da:

**ZERBITZU PUBLIKOAK ESKEINI ETA IHARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

**ERANSKINA**

**H. ZABORBILKETA**

Nekazal ustiapenera bideratutako jarduerak tasa honetatik salbuetsita egongo dira.

**H.1 HIRUHILABETEKO TARIFAK**

a) Egoiliarrek helbidetzat dauzkaten etxebizitzak:

- Hiruhilabetea.....25,00 euro

b) Lokal komertzialak eta zerbitzuak:

- Hiruhilabetea.....55,00 euro

c) Taberna, jatetxe, jolas-elkarte, janaridenda, arrandegi eta antzekoak:

- Hiruhilabetea.....68,00 euro

a) Enpresak:

- 250 m2 bitarteko jarduerak/hiruhilabetea.....68,00 euro

- 251 eta 1.000 m2 bitarteko jarduerak/hiruhilabetea.....85,00 euro

- 1.001 m2 gorako jarduerak/hiruhilabetea.....100,00 euro

**K. KULTUR ETA GIZARTE MAILAKO JARDUERAK**

**2. PILOTA:**

Astero bi ordu edo frakzioa.....95,00 Euro

Astero bi ordu térdi edo frakzioa.....110,00 Euro

Astero hiru ordu edo frakzioa.....125,00 Euro

**L.- UDAL KIROLDEGIAN IKASTARO EDO KIROL AKTIBITATEAK**

**1.- KIROLDEGIKO URTEKO ETA HILABETEKO ABONUA**

TALDEA	ADINA	URTEKOA	HILABETE
Haurrak	0-15 urte	28,88 €	5,25 €
Gazteak	16-24 urte	47,25 €	6,30 €

Helduak	25-64 urte	89,25 €	10,50 €
65 urtetik gorakoak, baita jubilatuta eta pentsionistak ere.	≥ 65 urte	57,75 €	6,30 €
Elbarrituak		42,00 €	5,25 €
Langabetuak			4,20 €

**UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIA-GATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

**ERANSKINA**

**B. ESPALOIEN GAINETIK ETXALDETARA IRISTEKO IBILGAILUEN SARRERA ETA BERAUEN APARKAMENDU ERRESERBA.**

e) Garaje indibidualetan 5 auto baino gutxiago sartzen direnean:

1\* Auto bakoitzeko eta urteko. .... 21,02 Euro  
(ezabatua)

**C. FERI ETA HERRI FESTETAKO POSTUAK:**

i) Zirkoa: Eguneko..... 100,00 Euro

Bigarrena.- Aurreko atalean adierazitako akordioa 30 laneguneko epez jendaurrean jartzea, berarekiko aurkez daitezkeen erreklamazio edo oharpenetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu ez bada, onartutako erabakiek behin betiko izaera hartuko dute, onspen berri baten beharrik izan gabe.

Laugarrena.- Aurreko atalean adierazten den behin betiko akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2017ko abenduaren 31a baino lehen argitaratzea.

Aipatu proposamena bozketara eraman eta aho batez onartu da.  
Bozketaren emaitza ikusirik onartuta gelditzen da proposamena.

**6.- GALDE ERREGUAK.**

Bat ere ez.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede ematen dudalarik.